




**TOKIKO PRODUKTUAREN
10. ASTEA**

PINTURA- LEHIAKETA

Aurkezteko epea:
2025ko urriaren 7a
semanadelproductolocal.com

ANTOLATZAILEAK



Ayuntamiento de
Pamplona

Iruñeko
Udala



PINTURA- LEHIAKETA

PARTE-HARTZAILEAK

Nafarroan bizi diren eta **6 eta 18 urte artean** dituzten neska-mutikoak eta gazteak.

IZENA EMATEA

Parte hartzea doakoa da. Izena emateko formularioa bete beharko da, eta margolanarekin batera eman beharko da edo pintura-akademian edo jatorrizkoak emateko guneetako batean. **Izena emateko epea 2025ko urriaren 7a, asteartea, amaituko da.**

EZAUGARRIAK

Gai nagusiak Nafarroako tokiko produktuan jarri beharko du arreta: gazta, ardoa, patxarana, olio, orburua, zainzuria, piperra, txistorra, aratxea, arkumea... Egile bakoitzak lan bakarra aurkeztu ahal izango du, eta teknika librea izango da. **Gomendatzen da mihisearen neurria 41 x 33 cm izatea (6. zenbakia, figura).** Antzeko neurrietan eta beste euskarri batzuetan egindako lanak onartuko dira, adibidez, xaflan edo oholtxoan.

KATEGORIAK

Bi kategoria izango dira, eta bakoitzak bere sariak izango ditu:

- Txikiak: **6 eta 12 urte artekoak.**
- Handiak: **13 eta 18 urte artekoak.**

EPAIMAHAIA

Epaimahaia margolari ospetsu batek, Reyno Gourmeteko pertsona batek eta Iruñeko Udalaren ordezkari batek eratuko dute.

SARIAK

Handien kategorian, lehen sariaren balioa 300 euro izango da, eta accesitarena, 125 euro. Txikien kategorian, berriz, lehen sariaren balioa 150 euro izango da, eta accesitarena, 75 euro. Sari guztiak txartel moduan emango dira, margolaritzako materialarekin trukatzeko. **Sari banaketa 2025ko urriaren 12an, igandea, egingo da 11:30ean Nuevo Casino Principalen.**

ESKUBIDEAK

Lan irabazleak eta haiek erreproduzitzeko eskubideak INTIA, Instituto Navarro de Tecnologías e Infraestructuras Agroalimentarias, S.A. sozietatearenak izatera igaroko dira. Lehia honetan parte hartzeak berekin dakar oinarri hauek erabat onartzea eta epaimahaiaren erabakiekin ados egotea. Sarituak edo hautatuak izan ez diren lanen egileek urriaren 14tik (asteartea) urriaren 24era (ostirala) jaso ahal izango dituzte beren lanak INTIAren bulegoetan (Serapio Huici etorbidea, 22, 31610 Atarrabia), 10:00etatik 14:00etara. Hartara, ez badira hartzen egun horietan, ulertuko da uko egiten zaiola hartzeari eta INTIAk libreki erabili ahal izango ditu, inolako motako erreklamazio edo kalte-ordain eskubiderik aitortu gabe.

Jatorrizko lanak emateko guneak

TALLER MÓNICA LOGAR
C/ Compañía 27
Pamplona/Iruña – 31001

COMPAÑÍA DE OFICIOS
C/ Felipe Gorriti 28
Pamplona/Iruña – 31003

CG MANUALIDADES
C/ Juan María Guelbenzu 50, bajo
Pamplona/Iruña – 31005

GERO ARTE
C/ Juan María Guelbenzu 13,
esquina con Remigio Múgica 2
Pamplona/Iruña – 31005

LAURA GONZÁLEZ ACADEMIA DE ARTE
C/ Pintor Crispín 4, trasera
Pamplona/Iruña – 31008

KIKUYU TALLER ARTÍSTICO
Trasera Travesía Acella 6, bajo
Pamplona/Iruña – 31008

ACADEMIA DE DIBUJO Y PINTURA
BARAÑÁIN
Avda. Pamplona 29, bajo
Pamplona/Iruña – 31009

TALLER ACEÑA - OLMEDO
C/ Monasterio de Fitero 16
Pamplona/Iruña – 31011

ACADEMIA DE PINTURA AMAIA GARCÍA
Parque Enamorados 4, bajo
Pamplona/Iruña – 31014

ACADEMIA DE ARTE GRAFITO
C/ Concejo de Alzuza 12
Pamplona/Iruña – 31016

ACADEMIA DE PINTURA
SONIA MANCEBO
C/ Concejo de Olaz 15
Pamplona/Iruña – 31016

EL CUERVO BLANCO
C/ Rigoberta Menchú 2 bajo
Ansoáin/Antsoain – 31013

CALVART ESTUDIO CREATIVO
Erreniega Parkea 13 bajo
Zizur Mayor / Zizur Nagusia – 31180

CROMLECH
Plaza Santiago 11
Estella-Lizarra – 31200

ACADEMIA ARTE MONTSE PALACIOS
C/ La Plana 26
Tafalla – 31300

ACADEMIA DE DIBUJO Y PINTURA
ÍNDIGO
C/ Capanaburua 8
Villava/Atarrabia – 31610

TALLER DE PINTURA DE DIANA INIESTA
Berroalde 7
Erratzu – 31714

PINTURA- LEHIAKETA

Izena emateko formularioa

IZENA

ABIZENAK

ADINA

HARREMANETARAKO TELEFONOA

HARREMANETARAKO E-POSTA

KATEGORIA

☐

TXIKIAK, 6-12 URTE

☐

HANDIAK, 13-18 URTE

☐

AKADEMIA

☐

IRAKASLE PARTIKULARRA

☐

NEURE KASA AURKEZTEN NAIZ

AKADEMIAREN/IRAKASLEAREN IZENA

AKADEMIAREKIN/IRAKASLEAREKIN HARREMANETAN JARTZEKO E-POSTA

AKADEMIAREKIN/IRAKASLEAREKIN HARREMANETAN JARTZEKO TELEFONOA

Emandako datu pertsonalak INTIAren jabetzako fitxategi automatizatu batean sartuko dira. Datu horien tratamendua Datu pertsonalak babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan eta Informazioaren eta merkataritza elektronikoaren gizartearen zerbitzuen uztailaren 11ko 34/2002 Legean ezarrita dagoenaren arabera egingo da.

Lehiaketan parte hartzean eta zure datu pertsonalak ematean espresuki ari zara onartzen lehiaketaren oinarriak. Argibide gehiago lortu nahi baduzu, INTIA Instituto Navarro de Tecnologías e Infraestructuras Agroalimentarias sozietatearekin harremanetan jarri ahal izango zara, 948 013 040 telefono-zenbakira deituta edo mezua bidalita intiasa@intiasa.es helbidera.